

## » TELEGRAMA

**Silvia Pérez Cruz** abeslari kataluniarrak Donostiako Victoria Eugenia kontzertua eskainiko du martxoaren 11n; aurkeztu berri duen *Domus* diskoa zuzenean entzuteko parada ezinhobea *STOP* Martxoaren 6an hasi zen eta 13ra arte izango da zer kontatua bertan: **Gernikako Lekuek** festibalaz ari gara, noski; kontzertuak, erakusketak, tailerrak, proiektzioak... *STOP Bi Harriz Lau Xori* jaialdiaren 22. edizioa ekitaldiz beterik dator: musika, antzerkia, dantza eta zinema uztartuko dira martxoaren 15etik 20ra bitartean *STOP*

## » MUSIKA

## Poza



Montse Auzmendi

### Verdiren *La traviata*

OPUS LIRICA ORKESTRA

Zuzendaria: Andrea Albertin.

Eszena zuzendaria: Valen Moñux.

Tempus Ensemble Abesbatzaren zuzendaria:

Jagoba Fadrique.

Abeslariak: Ainhoa Garmendia, Matteo Mezzaro,

Paolo Gavanelli, Ainhoa Zubillaga.

Lekua: Kursaal Auditorioa.

Data: otsailaren 19a

Orain dela egun batzuk entzun nuen Krystian Zimmermann piano joleari egindako elkarrizketa interesgarri bat eta, beste kontu askoren artean bat nentorren zerbait esan zuen: "Taula gainean musika egiten denean inporta duena poza sentitzea dela; edo, hobeto esanda, musikarien artean alaitasuna sentitzen denean hori transmititu egiten dela eta horrek egiten duela benetan on interpretazio bat (kalitate minimo bat suposatzen da, noski)".

Esaldi horretaz gogoratu nintzen joan den ostiralean Donostian antzeztutako *La traviata* opera entzun nuenean. Opus Lirica izeneko elkartearen esfortzu ikaragarria egiten ari da Donostian operari bultzada emateko eta opera denboraldi bat sorrarazteko. Ez da gauza erraza, batez ere finantzazio ederra behar delako horretarako. Baina pixkanaka ari dira, baita ekimen interesgarriak eskaintzen ere. Aldi honetan, Verdiren titulu famatu

honen bertsio benetan "pozgarria" egin zuten. Baliabide eskasak dituzte, adibidez, begi-bistan zegoen zein pobrea zen dekoratua, baina hala eta guztiz ere, ikuskizun duin eta adoretua egin zuten. Batez ere, eszenarioan zeuden artista guztien arteko pasioa agerikoa izan zen, eta "poza" berriz, kutsakorra. Matteo Mezzaro tenorea, Alfredoren rolean, ahots politekoa baina teknika kaskarrekoa, Paolo Gavanelli baritonoa, Giorgio Germont egiten zuena, ahots ilun eta hautseztatuarekin ez ziren nahikoa izan espektakulua izorratzeko. Ez. Publikoa txundituta geratu zen. Hori da alaitasun musikalaren magia.

Hori bai, Ainhoa Garmendiak Violetta Valéry ederra egin zuen. Aspaldi honetan entzun gabe nuen, eta aitortu behar da soprano ederra dela, teknika landua duela, eta alde interpretatibotik oso konbentzigarria izan zen. Oso ondo mugitu zen taula gainean eta aria akatsgabeak egin zituen: *Amami Alfredo* edo *Aria di Violetta*, gozagarriak, esate baterako.

Beste abeslariak, hortxe. Ondo. Opus Lirica orkestrak, Andrea Albertinen zuzendaritzapean, duintasunez bete zuen bere papera. Bestalde, oso sinpatikoa izan zen dantzarien taldea, Nafarroako Dantza Eskolakoa, eta oso berezia toerro bizkaitarraren irudikapena, aurreku dantzaria bezala. Bitxia. Orokorrean, merezi izan zuen saioak. Segi aurrera! ■



Andrea Albertin zuzendaria